



# BALIOA SORTZEN DUTEN EKITALDIAK

EKITALDI JASANGARRIEN GIDA

irabazi balioetan  
murriztu zure karbono-aztarna  
utzi legatua

# AURKIBIDEA

- |          |               |           |                |
|----------|---------------|-----------|----------------|
| <b>1</b> | Energia       | <b>7</b>  | Ingurumena     |
| <b>2</b> | Hondakinak    | <b>8</b>  | Zirkulartasuna |
| <b>3</b> | Elikadura     | <b>9</b>  | Lerrokadura    |
| <b>4</b> | Mugikortasuna | <b>10</b> | Legatua        |
| <b>5</b> | Ura           | <b>11</b> | Komunikazioa   |
| <b>6</b> | Pertsonak     | <b>12</b> | Ebaluazioa     |

# 1 ENERGIA

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILERA EGUNEROKO KONTUA DEN HELMUGA BAT AURKITU NAHI DUZU?

JASANGARRITASUNA ARAUA ETA EZ SALBUESPENA DEN HELMUGA BAT IMAJINA DEZAKEZU?

Bilbon, sare elektriko publikoaren % 100a iturri berriztagarriez elikatzen da, erregai fosilak eta haien emisio kaltegarriak atzean utziz. Udalaren konpromiso honi eta mugikortasun berdearen aldeko apustu irmoari esker, zure ekitaldiak bere karbono-aztarna murriztuko du lehen minututik.



## 2 HONDAKINAK

Bilbok baliabide materialak modu egokian erabiltzen ditu, bai hiriaren egunerokoan, bai bertan antolatzen diren ekitaldietan, erabilitako materialek sortutako inpaktoa murrizteko helburuarekin.

### DIGITALIZAZIOA

Kontsumoa murriztea eta digitalizazioaren nahiz komunikazio digitalaren aldeko apustua sustatzen dira, eta, aldi berean, aztarna ekologiko txikiko materialen erabilera bultzatzen da.

### HONDAKINEN TRATAMENDUA

Ezinbestean sortzen diren hondakinak tratatu eta ahalik eta gehien aprobetxatzen dira. Izan ere, Bilbon hondakinaren ia % 90 tratatu egiten dira zabortegetan ez amaitzeko.



# 3 ELIKADURA

## GASTRONOMIA

Bisitariak gehien baloratzen duten alderdietako bat da. Bilbok garai berrietara egokitzea lortzen du elikaduraren arloan.

## JASANGARRITASUN-PRESTAKUNTZAK HOTELENTZAT ETA CATERING- ZERBITZUENTZAT

## ELIKAGAIEN XAHUKETA

Gure konpromisoa argia da. Ekitaldi guztietan elikagaien xahuketa murriztea eta birbalioestea aktiboki sustatzen dugu, baliabideen aprobe txamendu integrala bultzatuz eta soberakinen dohaintza erraztuz. Ezagutu Oreka Circular Economy-ren eskutik garatutako ekimen hauek.

## MERKATARITZA / OSTALARITZA ETA JATETXE-ARLORAKO GIDAK

## ELIKAGAIK OREKAN: EGOITZETARAKO PROGRAMA



© Roberto Ruiz

# 3 ELIKADURA



## ELIKADURA JASANGARRIA

Gastronomia arduratsu baten aldeko gure apustua bikaintasunean eta ingurunearekiko errespetuan oinarritzen da. Sukaldaritza-kalitatea ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunarekin orekatzen duen elikadura-eredua sustatzen dugu. Horretarako, honako funtsezko kontzeptu hauetan sakontzen dugu:

## AZTARNA EKOLOGIKO TXIKIKO MENUAK

## SASOIKO PRODUKTUAK

## LANDARE-JATORRIKO AUKERAK

## ELIKADURA-INKLUSIBOA

## OKM-KO PRODUKTUAK ERAGIN EKOLOGIKO TXIKIKOAK

\*Informazio gehiagorako, galdetu HORECA sektorearako 'Artxandako Ostalaritza Eskolako Prestakuntza' materialagatik

# 4 MUGIKORTASUNA

AUTOBUS ELEKTRIKO,  
HIBRIDO ETA IRISGARRIAK



UDAL-BIZIKLETEN  
ZERBITZUA



3 METRO-LINEA - TRANBIA -  
ALDIRIETAKO TRENA



Auto pribatua atzean uztea ez da utopia, errealitatea baizik. Bilbok garraio-sare ezin hobe eskaintzen dizu, hotelak, egoitzak eta gune turistikoak modu azkar eta garbian lotzen dituen. Zure ekitaldira bertaratzen direnak erraz mugitu ahal izango dira honako hauek erabiliz:

# 5 URA

Tanta bakoitzaren balio kalkulaezinaz jabetzen gara; horregatik, Bilbon gure uren % 99,3 saneatzea lortzen dugu.

ESPAZIO GUZTIETAN ERABILERA ADIMENTSUA ETA EFIZIENTEA SUSTATZEN DUGU, HONAKO HAUEN BIDEZ::

ITURRIETARAKO SENTSOREAK

TANTAKOAK ETA IHESAK SAIHESTEA

PRESIOAREN KONTROLA

UREZTATZEKO BERRERABILTZEA

# 6 PERTSONAK

EKITALDI BAT PERTSONEK ETA  
PERTSONENTZAT EGINDAKO  
JARDUERA BAT DA. SORTU  
HARMONIA EKITALDIAREN,  
BERTARATZEN DIRENEN ETA  
TOKIKO GIZARTEAREN ARTEAN

Irisgarritasun unibertsala

Lan-baldintza duinak

Kolektibo guztientzako  
inklusioa eta tolerantzia

# 7 INGURUMENA

GOZATU INGURUNEAZ KALTATU GABE, BABES EZAZU



# 7 INGURUMENA



## EFIZIENTZIA ETA BIRZIKLAPENA

Antolatu hondakinen bilketa-guneak modu efizientean, birziklatzea errazteko.

## ZIKLO NATURALA ETA EMISIOAK

Zaindu baliabide naturalak eta errespetatu ziklo naturaleko garairik delikatu eta sentikorrenak. Konpentsatu zure karbono-emisioak tokian bertan.

## FLORA ETA FAUNA

Seinaleztatu zaintza bereziko guneak sarbidea mugatzeko, horrela flora eta fauna babestuz.

# 8 ZIRKULARTASUNA

## OROKORRA

Erronka Garbia zigilua: IHOBek diseinatutako metodologia eta estandarra, zure ekitaldiaren aztarna negatiboa ahalik eta gehien murrizteko.



**ERRONKA GARBIA**

**EKITALDI EVENTO**

JASANGARRIA INGURUMENERAKO  
AMBIENTALMENTE SOSTENIBILE

## JATETXE-ARLOA

Hondakinak eta elikagaien xahuketa murriztean jartzen da fokoa, hornikuntza adimendunaren, jatorriko murrizketaren eta hondakinaren birbalioestearen bidez.

PREBENTZIOA

MURRIZKETA

DOHAINZA

ERALDAKETA

ANIMALI ELIKADURA

AZPIPRODUKTOAK

KONPOSTA

## HOTELAK

Materialen erabilera partekatua eta alokairua bultzatzea, ekitaldietan erosketa efimeroak edo ziklo laburrekoak saihesteko.

ALTZARIEN ALOKAIRUA

SEINALEZTAPEN BERRERABILGARRIA

MAHAI-TRESNA ITZULGARRIAK

DEKORAZIO PARTEKATUA

IKUS-ENTZUNEN EKIPOAK

HORNITZAILEEN DIREKTORIOA

# 9 LERROKADURA, KOHERENTZIA

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) Bilboko eta Convention Bureau-ren estrategiaren parte dira. Lerrokatu zure balioak gure hornitzaileenekin.

ESPERIENTZIADUN ESPAZIOAK ETA ANTOLATZAILEAK

TOKIKO ETA SASOIKO ELIKAGAIK

AZTARNA EKOLOGIKO TXIKIKO ETA BERRERABILGARRIAK DIREN MATERIALAK

ZIURTARAGIRIAK: JARDUNBIDE EGOKIEN ISLADA



# 10 LEGATUA

LEGATU-PROGRAMA PROPIO BAT LANTZEN ARI GARA

BITARTEAN... INTERESATUTA BAZAUDE... GALDETU:

TRESNA JASANGARRIEN PORTFOLIOA

shirian inpaktu positiboa sortzeko batu zaitezkeen tokiko ekimen, fundazio eta erakundeen hautaketa, jardunbide sozial, ekonomiko eta ingurumen arloko egokiak dituztenak.

EGIN DAITEZKEEN EKINTZAK

Azal iezaguzu zure ideia —prestakuntzak, herritarrentzako hitzaldi irekiak edo bestelako proposamenak izan—, eta elkarrekin antolatzeko modua bilatuko dugu, zure ekitaldia hiriko bizitzan integratzeko.

# 11 KOMUNIKAZIOA

CKOMUNIKAZIO GARDENA: EKITALDIA BERE INGURUNEAREKIN LOTUZ

KONPROMISO ETA ENTZUTE AKTIBOA


Tokiko komunitatearekin eta interes-taldeekin konfiantza sortzen dugu, elkarrizketa jariakorraren eta haien ekarpenak txertatzearen bidez.

JASANGARRITASUN-KULTURA

Bertaratuak eta hornitzaileak kontzientziatzen ditugu, jokabide-eredu arduratsuak eta hondakinen kudeaketako jardunbide egokiak zabalduz.

ALIANZA ESTRATEGIKOAK

Lankidetzan estuan dihardugu bazkide eta hornitzaile adituekin, neurri jasangarrien ezarpenean bikaintasuna bermatzeko.



# 12 EBALUAZIOA

JARDUERA EKONOMIKOA

Bilbao Convention Bureau-n gure inpaktua KPI sistema baten bidez neurtzen dugu. Zure ekitaldiaren inpaktua ebaluatzeraz gonbidatzen zaitugu ere.

KARBONO AZTARNA

BiCBren laguntza zein Lurgaila, Formarte eta Troka bezalako tokiko erakunde bidez, zure emisioak tokian bertan arintzeko eta konpentsatzeko programa errealak eskaintzen dizkizugu.

GIZARTE INPAKTUA



# INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Bilbao Convention Bureau

#ARIMABERDEA

✉ [arimaberdea@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:arimaberdea@bilbaoekintza.bilbao.eus)

✉ [bicb@bilbaoturismo.bilbao.eus](mailto:bicb@bilbaoturismo.bilbao.eus)

